

Lamindaoko eliza

Ermita hau antzinako Parrokia zen eta Olabarri-Leguizamon etxeari zegokion. Bere inguruan hilerri bat dago eta barruan bataio-harria.

Beste hamabi ermita daude.

- Deunaren basiliza
- Santiagoren basiliza
- Bizente deunaren basiliza
- Ageda deunaren basiliza
- Jon deunaren basiliza
- Andra Mariaren basiliza
- Lontzo deunaren basiliza
- Frantzizko deunaren basiliza
- Blas deunaren basiliza
- Migel deunaren basiliza
- Inazio deunaren basiliza



c) **Errotak**

Dimako herrian errotak egon ziren. Ez dakigu ziur noiz jarri ziren martxan, baina XVIII. mendean funtzionamenduan zeudela uste da. Hauek eraikitzeke obra handiak egin ziren. Dima, erroten kontuan hoberen prestatuta egon den herria izan da. XX. mendea hasieran zortzi bat errota zeuden, (Ziarrusta, Arzubi, Mugatzenbi, Errotabarrin, Bentatxurin, Zamakolan eta Landisolan). Indusiko errekek mugitzen zituen errota guztiak. Zerbitzu on bat zen gure baserrietarako, lurrak ematen zuen artoa eta garia irin izatera eraldatu ahal zelako. Errota batzuetan, adibidez Zamakolan, argindarra ere lortzen zen. Zamakolakoak auzoko hogeita hiru baserri ematen zion argia.

OHITURAK, ERRITOAK, KONDAIRAK, TRADIZIOAK

AKELARREAK

Dimako Lamindao auzoan, Petralanda izeneko lekuan akelarreak egiten ziren. Azkuek dio : «Arratiako sorgin-tokian, Petralandan, bide-gurtze bat dago eta hantxe, zarrak dinoenez, egiten ebezan euren olgetak»

SAN JUAN

Diman, Arratian eta Euskal Herri osoan legez, San Juan eguna ospatzen zen errito bereziki.

OHITURAK

Beste ohituren artean, Diman eta Arratia osoan “Mokotxa”-ren ohitura dago. Mokotxa, barruan arrautzak daraman hiru kuxkurreko ogia da. Aitabitxi eta amabitxiek besoetako umei Pazko egunean oparitzen zieten.

KONDAIRAK

Kondaira askok Diman dute jatorria, ezagunen artean “Lamiak Jentilzubin” eta “Baltzolako Sugoia” (ibilbidean azaltzen direnak dira) eta baita honako hau:

Dimako baratzetan lihoa landatzen zen eta honek garrantzi handia zeukan oihalak egiteko. Lihoarekin daude lotuta istorioak.

LIHO ZAPIA ETA GAUEKO ARIMAK

Lihoa zemendian ereiten zen eta maiatzean atera. Gero landan zabaltzen zen, apur bat bigun zedin. Bigundu ostean eskupoilak egiten ziren eta etxera eramaten zen. Etxera eramanez eta labean epel zegoela lihoa barrura sartzen zen. Lihoa apur bat epeltzen zenean trangea esaten zitzaion erramientarekin jo-jo egiten zen liñoaren azal marroizka guztia botarazi arte. Hurrengo pausoan ezpata izeneko egur batekin liho multzoa harrotu egiten zen. Ostean sarrantxea erabiltzen zen, sarrantxea egur bat bost-sei haginez atondutako tresna zen, lihoa ahal denik eta finen ipintzeko. Ondoren, finua eginda gero, mataza egin behar zen lau koadroko tresna bat erabiliz.


Hau dena egin eta gero lihoa zuritzen zen lixibaz eta uraz garbitu. Garbi zegoenean harildu egiten zen eta ehuleari ematen zitzaion. Ehuleak oihala egiten zuen eta etxez-etxe joaten zen mando batekin. Dimako ehuleari “Txankerri” esaten zioten.

Esaten zen, gauean arimak ibiltzen zirela, abemariatik hasi eta oilarrak jo arte. Arimok ibiltzen ziren euren penak kentzen eta eliza portalean eskean ibiltzen ohi ziren. Baina ez zitzaien dirurik eman behar, lihozko zapi baten eskua batuta baino. Eta zerbait izango zen zeren eta esaten dute eskatzen ari zen arima horrek bere bost atzamarren erre marka utzi zuela liho zapi horretan eta orduan bai, orduantxe sartu zela zeruan.

IBILBIDEA

Dima-Ugarana eskolatik abiatzen gara, Oba eta Artaunerako norabidean, 100 metro egin eta gero, zubia zeharkatu eta Baltzolara igotzen hasiko gara errepidetik. 20 minututan Bargondia auzora helduko gara. Han, Santa Apolonia basiliza bisitatuko dugu.

Berriro errepidetan Iturriondobeiti baserria ikusiko dugu ezkerrean, baserri honetan bizi zirenak Baltzolako Sugoi-ren kondairaren



protagonistak izan ziren. Apurtxo bat gorago errepede ezkerrean iturri eder bat topatuko dugu.

Errepidetik aurrera beste 20 minututan Baltzolako San Lontzo basilizara helduko gara. Basilizaren inguruan mahaia eta erretokiak daude.

Errepide nagusia albo batera utzita eskumatik beherantz doan bidea hartuko dugu eta erreka zeharkatuz Baltzolako kobetara helduko gara. Lehenengo kobak Abaro izena dauka eta alde batetik bestera pasatu ahal da, erreka bidea jarraituz. Ondoan Baltzola

koba handia aurkitzen da. Kobazulo honetan kokatzen da Euskal Herriko kondaira ezagunenetariko bat:



BALTZOLAKO SUGOIA

Baltzola baino beherago dagoen Bargondiko etxe mordotsuan dago Itutrriondobeiti baserria. Etxe horretan anaia bi bizi ziren Paulo eta Pello eta abere asko ere bazeukaten: ardiak, ahuntzak, behiak eta zaldiak .Anaia biak ibiltzen ziren artzain lanetan.

Negu aurretiko batean, urteko lehen elur-malutak barruntatuz batera, ardietara joan ziren Paulo eta Pello anaia biak. Ardiak Baltzolako koba- zuloaren ondoko landan zeuzkaten eta elurra loditu baino lehen etxera edo tejamanara ekarri nahi zituzten. Han zebiltzan ardiok pilatu nahian, bateko txakurrari txistu egin, besteko makila jaso elurrak mara-mara eragion bitartean.



Ahalegin guztiak eginda ere, dena zen alperrik. Elurrak, goian behean, zarratu-zarratu ekiten zion eta santiamen baten zuritu zen dena, ardiak ibili ez egiteko moduan.

Ardiei hanka meheak elurtzan sartzen zitzaizkienean, euren artileak elur-bolaz jausten ziren pisuaren pisuaz ibili ezinik geratuz. Ardiok lehorreratu nahiaren ekina

begien bistan zegoen Baltzolako koba-zulora eramatea erabaki zuten.

Baltzolako kobara sartu ziren eta sugoi bat ikusi zuten, anaia gazteak hartu harri bat eta jo zuen sugoi hori eta buztana kendu zion. Beste anaiak esan zion bizirik itxi dezala bera ere Jaungoikoak egina zela eta, bertatik zarata ikaragarri bat entzun zuten eta arin-arin irten ziren mutilak kobatik.

Negu luzea be joan zen eta udaberria etorri zenean, Paulori guda batera joan beharra etorri zitzaion. Urrun joan behar izan zuen, Luiandoko Malato arbola baino askoz urrunago. Borondatez kontra baina joan egin behar.

Guda hori luzea izan zen eta luze egin zitzaion Paulori, baina halakoren baten akabatu zen gerra hori eta lizentziatzeko eguna ailegatu. Gabon eguna zen. Eguerdi ostean lizentziatu zituzten gudariok. Poza eta algara ez zen falta, baina Paulok, begiak jaso eta esan zion bere buruari:

-Ni nagok ona! Gabon arrastia duk eta ez zeukaat gaur etxera heltzeko modurik.

Aurtengo Gabonak bidean egin beharko dizkiat. Baina tira, konformatu egingo nauk Gerra honetatik bizirik irten diat eta. Hausnarketok eginda, etxerako bidean hartu zuen Paulok. Oinez zetorren bakar bakarrik eta pentsakor. Baltzolako koban balego, handik etxea laster zeukala pentsatu zuen, eta bertatik gizon motz izugarritzko bat agertu zitzaion eta itaundu zion: zuk nahi duzu Baltzolako Kobara joan?’ eta baitz erantzun zion. Besteak Baltzolarara ekarriko zuela esan zion, baina baldintza batekin: berak emandako bi gauza etxera eraman behar zituen

Baietz erantzun zion, eta berehala mutil hori Baltzolako kobako atean aurkitu zen. Gizon harrigarriak itxaroteko esan zion. Honetan zegoela urremokil handi bat ekarri zion berarentzat eta setazko gerriko bat bere anaiarentzat, hiru egunen barruan kobara etor zitezela esanez.

Mutila etxerantz joan zen, hara heldu zenean denak harrিতuta eta oso pozik gelditu ziren. Mutilak gertatutakoa kontatu zien, urremokila erakutsiz eta anaiari setazko gerrikoa luzatuz. Anaia gazteak berak gerrikorik ez zuela behar eta lotzeko etxe-aurreko intxaurrondoari esan zion. Lotuz batera intxaurrondo hasi zen su ta gar susterretatik.

Esandako egunean bi anaiak Baltzolako kobara hurbildu ziren, gizon mantxu bat etorri zitzaion eta mutil gazteari ea zergatik mankatu zuen galdetu zion. Honek ez zuela inor mankatu erantzun zion. Gizon mantxuak erakutsi zion bere esku mantxua eta esan zion:

-Gogoratzen zara behin batean kobazulo honetan nor jo zenuen?

Eta mutilak:

-Nik behin batean, ardietara etorrita sugoi bat jo nuen- erantzun zion.

-Ez zen sugoia zuk jo zenuena, neu nintzen eta hemen nago zure harrikadak mantxuturik. Eskerrak eman iezaiozu bular bien erdian daramazun irudi zorioneko horri, bestela bertan hilko zintudan baina birao bat botatzen dizut: “ Iturriondobeitin mankua, koxua, gorra edo itsua ez da faltako”.

Ibilbidearekin jarraituz eta kobazuloak atzean utzita bihurgune itxi baten ezker aldean Axlor leizea topa genezake erdi ezkutuan eta burdinazko hesi batez babestuta, hemen aurkitu baitziren Bizkaia osoko Neandertalen aztarnarik zaharrenak.

Hemendik oso gertu Jentilzubi izeneko haitzezko zubi naturala ikus genezake, natura eta mitologia elkarlotuz:

LAMIAK JENTILZUBIN

Indusitik Jentilzubira doan bideko azken baserria Gibiltar deitzen da. Garai batean lamiek sarri bisitatzen zuten baserri hau.

Etxe honetako emakume bat, ganadua zaintzen koba ondoan zegoela, lamia bat aurkitu zuen bere ilea orrazten Jentilzubin eserita : lamiari eskutik laban egin zion orraziak eta




bidera jausi zitzaion. Gibiltarreko neskameak hartu eta etxera eraman zuen: orrazia urrezkoa zen.

Egun hartatik aurrera lamia gauero jaisten zen Gibiltarrera eta atetik oihuka esaten zuen:

“Emaidazue orrazie, ezpabe kenduko dotzut bizie”.

Lamiak, ate zuloaren ondoan jarrita, burla eta irri egiten zizkieten ikaratu arte baserriko sukaldean irutera biltzen ziren emakumeei. Gau batean, gizonezko bat geratu zen iruten sukaldean emakume-jantziekin jantzita. Lamia bat, atera joan eta gizonezkoari esan zion” Bizarrak eta goruetan?”. Gizonezkoak burrunntzi bat zeukan sutan jarrita eta begitik sartu zion lamiari gori-gori. Hau ez zen ez, berriro, Gibiltarrera etorri.



Berutzako
bidea jarraituz
Gibiltar
baserria
eskuman
utziko dugu eta
Zamakolako
errota ikusiko
dugu aurrez

aurre. Indusi errekarri jarraituz gero bere izena duen auzora iritsiko gara hemen San Fraiskuko basiliza dugularik.

Zubia zeharkatu eta errepidea hartuko dugu Dimako norabidean. Laster Bernaolako auzoarekin egingo dugu topo eta errekararen beste aldean erdi ezkutaturik bertako karobia.

Errepidean behera goazela Bentatxuri baserriaren parean jaisten den bidezidorretik joango gara Ugarana auzo nagusira heldu arte.

BIBLIOGRAFIA

Etxebarria, J.M.(1995). *Bizkaialdeko Ipuin-Esaundak*.Euba-Amorebieta (Bizkaia): Ibaizabal.

Aurrekoetxea, G.(2004) *Dimako etxe eta leku-izenak*. Dima: Dimako Udala.

Dima-Ugarana LHI-ko Ikasle ohiak egindako monografikoak.

Etxebarria, F. (2005) *Dimeko Argie*. Dima: Dimako Udala.

Zabala, M. (1992) *Dima*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

Laratzu Taldea (1997) *Ibilien... Dima*. Bilbo: Dimako Udala.

EGILEAK

DIMA-UGARANA H.I.


Aiartza Uribetxebarria Oihana

Aiartza Uribetxebarria Urko
Akesolo Atutxa Olaia
Arce Larrory Olatz
Asua Basterra Aitor
Aurrekoetxea Beaskoetxea Ekain
Aurtenetxe Petralanda Alain
Ausmendi Lopez de Bergara Jon
Ben Taleb Ikuza Sukaina
Burgete Uriarte Jokin
Cantalejo Barrutieta Unai
Corvo Palacios Aitziber
Cuqui Roda Paola Andrea
Cuqui Roda Yanina
Delgado Rodriguez Libe
Esparta Ocon Joana
Etxebarria Elorriaga Jokin
Etxebarria Zuloaga Unai
Garaigordobil Garcia Peio
Gonzalez Sautua Lexuri

Gorospe Jauregi Joseba
Intxaurbe Goitisoló Aitor
Iriondo Alzola Imanol
Iza Atutxa Maitane
Ladislao Agirrezabala Ekhi
Ladislao Agirrezabala Oier
Manterola Yurrebaso Jon
Mendia Bengoetxea Jon
Mendia Bengoetxea Julene
Petralanda Cansado Aritz
Salvador Esteve Imanol
Santos Calzada Amaur
Sautua Asua Igor
Sautua Asua Jon
Urueña Artaraz Amaia
Zabala Zurinaga Itziar
Ziarrusta Intxaurtza Ekhi
Zelestino Ibabe Maddi
Zuazo Azaola Ioritz
Zuloaga Sarabia Eguzkiñe

LEMOA

Lemoako kokapena



MUGAK : Lemoak, iparraldetik Bedia eta Zornotzarekin egiten du muga, hegoaldetik Igorre eta Dimarekin, ekialdetik Zornotzarekin eta mendebaldetik Bediarekin.

AZALERA : Lemoak, 15, 95 Km²-ko azalera du.

ARMARRIA :



LEMOAKO ARMARRIA

Zifarrezko hondoan San andresen gurutze urdina eskuman zumar orria eta ezkerrean listorea dauzkala biak urdinak

IKURRINA :



Karmin kolerekoa erdian armarrria dauala Zutoihala : triangelarra eta karmin kolerekoa, erdian armarrriagaz

Deskripzioa

Arratiako eskualdean, Arratia eta Ibaizabal ibaiak gurutzatzen diren lekuan kokatzen den bizkaitar udalerrria da Lemoa. Erdiguneak leku lau bat okupatzen du. Lur eremu lau hau mailaz maila goitzen da, eta bertako mendiak hauek dira: Arraño (395 m.), Arraño II (375m.), Aramotz (514m.) eta Lemoatx (Peña Lemoa, 368m.). Lemoako mendietan karezko osagarriak dira nagusi eta horri esker zementu eta etxegintzako materialen industri garrantzitsu bat sortu da. Lemoatik ekialderantz eta hegoalderantz *Gailurtza* izenarekin ezagutzen den mendi mota azaltzen da.



Arratia ibaiak eta
Ibaizabal ibaiak
egiten duten lekua. bat

Lemoako ikuspegi orokorra Elorriaga auzotik ateratako argazki batean.



Lemoako historia

AURREHISTORIA


Atxubieta eta Arlanpe kobazuloetan aurkitu ziren k.a 34.000. urteko lehen aztarnak.

ERDI AROA

Elorriagako auzoan kokatu ziren lehen biztanle iraunkorrak eta nekazaritzan aritu ziren (garia, artatxikia, mahastia...).



Elorriaga auzoko San Pedro basilizan dauden estelen detaileak.



San Pedro basilizaren sarrera

X. mendean biztanleak zeuden Aldape, Atutxa, Agarre eta Atutxola dorreetan eta Santa Maria eliza eraiki zuten. Nekazariak jauntxoek eraikitako baserrietan bizi ziren.

ARO MODERNOA

Nekazaritzan, abeltzaintzan eta lurrak eta mendiek ematen dizkiguten lehengaietan (errotak, burdinolak, errementaritza...), oinarrituko da sistema ekonomikoa.

XVII. mendean 82 fogera zituen eta Gernikako batzar nagusietan parte hartu zuen, 64. eserlekua izanik. XVIII. mendearen bukaeran burdinola bat, errota bat, harrizko zubi bi eta taberna zituen.

GERTAERAK

Tropa nazionalak Gasteiz menperatu ostean, eta Bilbo menperatzea helburu zutela, Otxandiotik eta Dimatik pasatu ostean Lemoara iritsi ziren. Borroka handia izan zen, eta egunetz nazionalek hartzen zuten tontorra gauzez gudariak berreskuratzen zuten. Maiatzaren 29an hasi eta ekainaren 5a arte iraun zuen egoera honek, gogorrena ekainaren 3an izanik, “Condor Legioak” hegazkinez erasotu eta 100 gudari baino gehiago hilez.

ARTEA

Lemoan dauden monumentuak hauek dira:

- **San Pedro basiliza:** erromatar garaiko estela batzuk daude; sei hormetan, eta bat basilizaren erdian lurperaturik.
- **San Inazio basiliza:** San Inazio auzoan kokatuta dago eta herriko jai nagusiak bere oroimenez ospatzen dira.
- **Erromatar zubia:** Larrabeiti auzoan aurkitzen da eta erromatarrek bere garaian eraiki zuten.



- **Udaletxea:** gaur eguneko eraikina da. Arraibi auzoan aurkitzen da.

- **San Antolin basiliza:** Lemoatx mendian aurkitzen da.
- **Andra Mari eliza:** Erromatar garaiko aztarna batzuk, atariko zutabeen kapitelak, hornen arteko leihoa,... ikus ditzakegu bertan.
- **Landeta basetxea:** Euskal arte herrikoiaren irudiak daude ikusgai (gurutzeak, eguzkiaren sinboloak, giza aurpegiak,...).



San Pedro basiliza (Elorriaga)



San Inazio basiliza (San Inazio)

Andra Mari eliza




Juan Bautista Eguzkitza Meabe



Lemoan jaio zen 1875. urtean. “Eguzkitza” ezizenez ezagutzen zen idazlea. Abade ikasketak egin zituen Zornotzan eta Gasteizen, 1899. urtean abade egin zelarik. Teologian lizentziatu zen.

Bere lan aipagarrienetarikoa hauek dira: **“Garbitokiko arimaen ilara”**, **“Andra Mariaren Loretako ilara”** eta **“Argi Donea”** itzulpen lana. Bere garaiko hainbat aldizkaritan eta astekaritan (Ekin, Euskera, Yakintza,...) parte hartu zuen. 1919. urtean Euskaltzaindiko kide izendatu zuten. Hainbat sari jaso zituen, aipagarriena **“Kirikiño”** saria delarik. 1939. urtean hil zen Lemoan.

Gaur egun gure eskolak idazle honen izena dauka bere omenez.



Juan Bautista Eguzkitza Meabe
(1875 – 1939)




Bere lan garrantzitsuenen azalak.

Biztanleria

Biztanleria gehituz joan zen Lemoan .975. urtera arte Bilbotik hurbil zegoelako eta inguruko herrietan industria zegoelako. Era berean herrian bertan ere, industria sortuz joan zen : *Cementos Lemona* lantegia adibidez.

Hortik aurrera populazioa gutxitzen hasi zen etxe berriak eraikitzen ez zirelako batez ere. 2000. urtean gutxi gorabehera biztanleria ugaritzen hasi zen berriro etxebizitza berriak eraikitzen hasi zirelako.

Biztanleriaren zatirik handiena Arraibi, Inzuntza eta Elizondoko auzoetan bizi da.



Urtea	1900	1910	1920	1930	1940	1950	1960
Biztanleria	957	1201	1381	1774	1906	2133	2461

Urtea	1970	1977	1989	1992	1995	1999	2002
Biztanleria	3127	3060	2982	2703	2598	2550	2803

Ohiturak, erritoak, kondairak, tradizioak,...

Kultura bakoitzak ospakizun eta une ezberdinen aurrean jokaera ezberdinak ditu. Gure herriak ere euskal kulturaren partea izanda baditu bereak. Adibidez:


- San Antolin jaia. (irailaren 2an) Lemoaztarrok San Antolin basilizara joateko ohitura dugu eta bertan, indaba txapelketa bat antolatzen da.
- Gure Amaren Jaiokundea (irailaren 8an) ospatzen da .
- Olentzero eguna (abenduarien 24an)
Gau magikoa, Olentzerok opariak ekartzen dizkigu eta.
- Urteberriko “aginaldoa”. Etxez-etxe urte berriko abestiak abesten dira, zerbait eskuratzeko (ohitura hau galtzear dago).
- Kandelerio (otsailaren 2an). Kandelak bedeinkatzen dira ekaitzen aurka babesteko.
- San Blas (otsailaren 3an). San Blaseko haria bedeinkatzen da eztarriko minetik babesteko, eztarrian jartzen da eta bederatzi egun igarota, erre egin behar da.
- Santa Ageda otsailaren 5ean ospatzen da, baina bezperan kalejira egiten da. Etxerik etxe koplak abesten dira, dirua zein janaria eskatuz.
- Inauteriak: Mozorroto, txerri belarri eta hankak jan, tostadak..
- Pedro Deuna (ekainaren 29an).
Elorriaga auzoan.
- Santiago (uztailaren 25an). Arraño auzoan.
- Inaxio Deuna (uztailaren 31n). San Inazio auzoan. Herriko jai nagusiak dira.



Ekonomia

Hona hemen Lemoa herriko taula lan - sektoreka:

1. Sektorean biztanleriaren % 0,6a.
2. Sektorean % 74,7a.
3. Sektorean % 24,7a.



Ikusten denez, bigarren eta hirugarren sektoreek hartzen dute jende gehien.

Lehenengo sektorean pertsona gutxik egiten dute lan. Hiru motatako lanak bereiz daitezke:

Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza.

Nekazaritzan lan egiten dutenak ugariagoak dira eta lurretatik ateratako produktuak haien etxekoentzat erabiltzen dituzte eta ez salmentarako.

Abeltzaintzan ardien inguruko lanetan aritzen dira.


Basoko lanetara ere batzuk (gutxik) dedikatzen dira.

Bigarren sektorean jende gehienak egiten du lan. Bi eratakoak daude:

1. Zementogintza: Lemoan dauden karezko harriak aprobetxatuz, zementua egiten da. (Azurrekan tuparri motakoa). Jende gehienak lantegi honetan egiten du lan. Bost harrobi desberdin egon dira (San Inazio, Lemorieta auzunean bi, Azurrekan eta Aparion), nahiz eta gaur egun bi martxan egon (azkeneko biak).
2. Metalurgia: Mekanika eta elektra materialerako tailerrak.

Hirugarren sektorean ere, jende ugari egiten du lan, nahiz eta Bilbon zerbitzu gehiago izan, bertan, oinarrizkoak ez dira falta (dendak, tabernak, bulegoak ...).

Ibilbidea



Ikusgarriak

1. Andra Mari eliza.
2. San Inazio basiliza eta bolera.
3. Urizar baserria.
4. Juan Bautista Eguskiza Meabe Ikastetxea.
5. Erromatar zubia eta Arratia ibaiak eta Ibaizabal ibaiak bat egiten duten unea.
6. Lemoako ikuspegi orokorra ikusteko tokia.
7. San Pedro basiliza (estelak).

Bibliografia

Urrutia, Andres. (2001). *“Bidegileak”*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Aurrekoetxea, Gotzon; Esparza, Iñaki eta Larrea, Angel en zuzendaritzapean beste 35 autoreen lana. (2005). *“Arratiako idazleen aitzindarien antologia”*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Urigüen, Aitor. (2003). *“Lemoa – 2.003. Bilbo*. Lemoako Udala eta Dyca Servicios Publicitarios. Dyca S.L.

Egileak

Maialen Agirregoikoa OzerinGoizane Ealo Martinez

Julen Lamikiz Martinez

Iñaki Lejarreta Aurrekoetxea

Maria Molinuevo Cano

Xabier Totorika Lopez

Mariam Abdi Mohamed

Iratí Aldekoa Cano

Yoandrys Amores Pedroso

Begoña Barroeta Barrenetxea

Deiene Zilonis-Aurrekoetxea Azkuenaga

Ireber Eraña Martinez

Saioa Flores Ziordia

Jon Garcia Arrese

Ane Goienetxe Azkuenaga

Lorea Lopez Muñoz

Janire Recio Izagirre

Rut Rodríguez Garcia

Maialen Romero Gonzalez

Jon Mikel Solaguren Txikon


IGORRE



KOKAPENA: ¹⁾

Igorre Bizkaiko lurraldean dago eta Arratiako haranean.

Mugak: Iparraldetik Lemoa, hegoaldetik Arantzazu, ekialdetik Dima eta mendebaldetik Bedia eta Zeberio.



Itsas gaineko altuera: 91 metrotakoa da.

Azalera eta ibilpideak: Igorre herriaren azalera 17,52 km²koa da. Iparraldetik Bilborako errepidea eta hego-mendebaldetik Gasteizerako N-240 errepidea pasatzen da.

IBILBIDEA

1.- ESKOLA: Inazio Zubizarreta L.H.I.
Nor zen Inazio Zubizarreta?



- *Haur eskola:*
(4 hilabetetik 2 urtera)



- *Eskola:* (2 urtetik 12 urtera)

- *Haur hezkuntza*



- *Lehen Hezkuntza*



¹⁾ Igorreko Udala (2004). *Igorre*. 6.

INSTITUTOA: Arratia B.H.I.



- DBH: (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) (12 urtetik 16 urtera)
- Batxilergoa: (16 urtetik 18 ra)

POLIKIROLDEGIA:

- Igerilekua, frontoia...
- Beste batzuk: ludoteka, liburutegia

ZUBIA: Arratia ibaia

Arratia ibaia Gorbeian jaiotzen da. Zeanuritik dator Areatzatik eta Arteatik pasatu ondoren. Gero elkartuko da Dimatik datorren Ugatza ibaiarekin.

LASARTE PARKEA:



Igorre erdiko parkea da eta bertan umeentzako jolasteko lekua dago.

KULTUR ETXEA:

Eraikuntza berria da eta bertan ekintza askotarako lekua egongo da, zinema ere bai.



POSTETXEA:



JUBILATUEN ETXEA

ZUBIZARRETA JAUREGIA

Mende hasierakoa da.



UDALETXEA:



Alkateak eta zinegotziek lan egiten dute herria hobetzeko.

SAN ANTONIO ERMITA:

Ekainaren 13an jai nagusiak ospatzen dira San Antonioren omenez.



ANDRA MARI ELEIZA

Abuztuaren 15ean Igorreko bigarren jai nagusiak ospatzen dira Andra Mariaren omenez.



VILDOSOLA JAUREGIA

XVIII. mendekoa da.



MANKOMUNITATEA


Arratiako udalen mankomunitatea 1982an sortu zen.

Herri hauek daude mankomunitatean sartuta: Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Lemoa, Ubide, Zeanuri eta Igorre.

Arratia osorako zerbitzu batzuk emateko sortu zen, adibidez, hondakinen bilketa selektiboa.



AGARRE



Igorre haran batean kokatuta dago, ibai biren ertzean eta, baita, mendiz inguratutik.

Mendiak: Mendi aipagarrienak hauek dira: Mandoia (634 metro), Arginatx (517 metro), Aramotz mendikatea (514 metro), Motxogan mendixka eta Belatxikita (662 metro).³⁾

³⁾ Igorreko Udala. Igorre.5



Biztanleria:

Gaur egun eta alkateak udaletxean esandakoaren arabera, 4.200 biztanle inguru ditu Igorrek.

Banaketa: Azken urteotan Igorreko populazioa asko ugartu da industri asko dagoelako.


Jende asko erdigunean bizi da baina beste asko auzoetan sakabanatuta daude, populatuena San Kristobal auzoa delarik.



Beste auzo batzuk: Urkizu, Basauntz, Agarre, Mikele, San Juan, Santa Luzia, Loiata Eta baita hauen auzuneak: Garbe, Gezala aipagarrienak dira.

Biztanleriaren eboluzioa: ⁴⁾

Urteak	1900	1920	1940	1960	1980	2005
Biztanle kopurua	1.365	1.722	1.732	2.016	3.426	4.200



Grafikoaren ondorioa: datuak kontutan izanda 1920tik 1940ra Igorre txikia zen gerraren ondorioz. Bestaldetik 1960tik 1.980ra aldaketa nabaria gertatu zen industriaren eraginez eta honek herrian eraikuntza berriak ekarri zituen.

⁴⁾ Igorreko Udala. *Igorre.5*

Auzo bakoitzak bere jaiak ospatzen ditu:

- **Ekainaren lehen astean:** Jesusen bihotza. *Gezala auzoa.*
- **Uztailaren 10ean:** San Kristobal.
San Kristobal auzoa.
- **Abuztuaren 24an:** San Bartolome.
Urkizu auzoa.



- **Irailaren 2an:** San Antolin. *Garamendi auzoa*
- **Irailaren 29an:** San Migel.
Garbe auzoa



- **Azaroaren 30ean:** San Andres. *Urkizu auzoa*

TAXI ETA AUTOBUS GELTOKIA

Garraioak: Autobusa daukagu (Bizkaibus) Bilbotik Zeanurira doana eta Dimatik Otxandiora Ubideraino.



Taxia
Autobusaren geltoki ondoan taxi geltokia dago

URBIETA FUTBOL ZELAIA

Igorre bi ibaiek zeharkatzen dute: Ugatza ibaia, Dimatik datorrena, eta bestea, Arratia ibaia iparraldetik hegoalderantz doana. Ibai bi hauek Urbietan (futbol zelaiaren alboan) elkartzeko dira. Hortik dator kio bere izena futbol zelaiari.



IGORREKO INDUSTRIALDEA

Ekonomia ⁵⁾

Igorreko jende gehienak industrian egiten du lan. Jarraian aztertuko dugu nola dagoen banatuta sektore desberdinetan.

Lehen sektorea:



Nekazaritzak beherakada handia izan zuen 1960. urte inguruan industriaren eraginez. Gaur egun %3ak egiten du lan arlo honetan: gehienak basoan. Zerrategi bat ere badago. Lurgintzan gehien baten artoa landatzen da.

Bigarren sektorea:

Arlo honek %55 okupatzen du. Igorreko lantegietan metalezko gaiak lantzen dira gehien bat. Lantegi gehienak 100 langiletik beherakoak dira. Lantegi batzuk hauek dira: Batz, Hierros Sancho...



⁵⁾ Igorreko Udala. *Igorre*. 7

Hirugarren sektorea (zerbitzuak):

Zerbitzuetan %42ak lan egiten du.
Hauen artean aipagarrienak: Udaletxean,
Mankomunitatean, Irakaskuntzan,
Polikiroldegian, Anbulatorioan, Taxiak,
AEK, Garraioak...



Egileak:


Aguirrezabala, Beñat
Alvarez, Xabier
Artetxe, Itxaso
Arranz, Eukene
Atutxa, Gaizka
Barrenetxea, Peio
Cacho, Oier
Carballo, Iñaki
Ciarrusta, John
Etxebarria, Irati
Echaguibel, Egoitz
Galarza, Mikel
Gomez, Ivan
Gonzalez, Thania
Gonzalez, Mikel
Izquierdo, Nahikari
Lekue, Ane
Lucha, Kevin
Pelaez, Jon
Ramoneda, Egoitz
Sebastian, Aitana
Yurrebaso, Aitor

INAZIO ZUBIZARRETA LHI

2005-2006 ikasturtea

IBILBIDEA

- | | |
|--------------------------|---|
| 1- Eskola | 12- Eliza |
| 2- Institutua | 13- Vildosola jauregia |
| 3- Polikiroldegia | 14- Mankomunitatea |
| 4- Zubia (Arratia ibaia) | 15- Agarre (Igorreko ikuspegi orokorra) |
| 5- Lasarte parkea | 16- Taxi eta autobus geltokia |
| 6- Kultur etxea | 17- Urbietako futbol zelaia |
| 7- Postetxea | 18- Ugatza eta Arratia ibaiak |
| 8- Jubilatuen etxea | 19- Osasun zentroa |
| 9- Zubizarreta jauregia | 20- Batz |
| 10- Udaletxea | 21- Industrialdea |
| 11- San Antonio ermita | |



OTXANDIO



KOKAPENA

Otxandio Durangaldeko eskualdean dago, baina bi eskualderen artean koka dezakegu, Arratia eta Durangaldea.

Araba eta Bizkaiko mugan koka dezakegu baina Bizkaiko probintziari dagokio. Bizkaiko hego-ekialdeko udalerrian kokatzen da.

Otxandiok hurrengo herri hauekin muga egiten du:


Iparraldetik: Abadiño

Hegoaldetik: Arabako Legutio

Ekialdetik: Arabako Aramaio

Mendebaldetik: Ubide, Zeanuri eta Dima

Otxandio gaur egun 1.169 biztanlek osatzen dute, %52,5 gizonezkoak izanik eta %47,5 emakumezkoak eta 12,43 km²-ko hedadura dauka.



DESKRIPZIOA

Otxandio Bizkaiko hegoaldeko bazter batean dagoen herri txikia da eta Bizkaia eta Araba komunikatzen ditu. Gorbeia eta Anboto artean dago, 549 metroko altueran kokatzen delarik.

Pagadi oihaltzuak eta zelai leunak bateratzen ditu Otxandiok. Urkiola ibaiak iparraldetik hegoalderaino zeharkatzen du herria, mendietatik jaisten diren ibaiadar ugari bilduz. Zadorran ibairatzen da.

Goizeko laino estuek mendietako ohiko klima iragartzen dute, estalki zuriak neguan eta zelai berdeak udan. Klimaren ezaugarri nabarmenena hotza eta hezetasuna da 1.050 biztanlek osatzen dute Otxandio. Biztanle dentsitate handiena hiri erdian kokatzen da, kanpoaldean Mekoleta eta Anteparaluzeta bezalako auzo txikiek osatzen dutelarik.

Nekazal eta abeltzaintza lanak osagarriak izanik, aktibitate ekonomiko nagusia antzinako olen ondorengo den metalurgi industriari bateratzen da. Komunikazioa Bizkaitik, Dimako zein Urkiolako portutik ematen da eta Arabatik, Gasteiztik, Legutiotik pasatuz. Autobus publiko zerbitzuarekin, Otxandio hirialdeekin komunikatzen da.



Otxandioko bista

HISTORIA

Otxandio, Diego Lopez de Haro jaunak sortutako udalerria da eta honen izena 1155ean entzun zen lehen aldiz.

Otxandio herriaren sorrerak helburu bat du: Meseta eta Cantabriako kostaldearen artean nukleo bat sortu, euren arteko trafikoa bermatzeko.

XIII. mendean hasita, bando gerratan, borrokaleku garrantzitsua izan zen, bertan oinetxe ugari izan zituelako. Bizkaiko jaurerriaz jabetzeko borroka latzak ere ezagutu zituen XII- XIV. mendeetan: Lehenengoan Diego López de Haro Bizkaiko XI. jaunaren tropak izan ziren María Díaz de Haro eta Joan Infante jaunaren aldeko tropen aurka eta hurrengoan Don Tello-ren aldeko tropen aurka. Geroztik ere heldu zen Otxandiora borroka.

1821ean hirurteko konstituzionalaren garaian, izandako batailetako bat bertan suertatu zen. Espainiako gerra zibilean ere, armada Frankistaren hegazkinek bonbardatu zuten Otxandio, 1936an eta 1937an, Bizkaian sartzeko asmoz.

ONDAREA

Otxandiok oso ondare aberatsa dauka, Plaza Nagusia nabarmena delarik bertan dagoen multzo monumentalengatik: kultur etxea, Vulcano iturria, Bolalekua eta Paseolekua, Udaletxea, Pelotalekua,...besteak beste.

Vulcano iturria: zutabe itxurako iturria da. Lau txorro dauzka gurutzeko oinplanoan. Gainean harrizko Vulcanoren irudia dauka, errementari tresnekin.

Udaletxea: 1742an eraiki zen eta barroko estilokoa da. Udaletxearen ezkerrean eguzki-erloju apaingarria ikus dezakegu. Otxandioko udaletxea ez da aberatsa ondasunei dagokionez, baina badaude bi elementu interesgarriak direnak: Batzar lekuko jarlekua eta artxiboa.

Pasealekua eta bolatokia: Bolalekua aisialdiko kirol-gune gisa erabiltzen da. Pasealekua honen gainean dago, merkaturako eta paseatzeko erabiltzen da eta Bizkaian horrelako besterik ez dagoela esan dezakegu.

Pilotalekua: 1857an eraiki zen. Joko leku zabala da. Bere hormak harlanduzkoak dira eta zoruak harri lauzazkoa du.

Eraikin eklesiastikoak: Santa Mañako eliza parrokiala: Berpizkunde garaikoa da XVI. mendean beste baten gainean eraikia. Geroago kanpandorre barrokoa erantsi zioten, eta XIX. mendean klasiko-berriko hegoaldeko barne luzegoak eta sakristia erantsi zioten.

Beste baseliza interesgarriak:

- San Martin baseliza, XV. mendean eraikia.
- San Antonio Abad eta Paduakoaren baseliza, XVII. mendean eraikia.
- San Roke baseliza XVIII. mendean eraikia. Baseliza honekin batera hilerria dago.



Santa Maria eliza



Udaletxea

HERRIKO KONDAIRA

Esan ohi da, herriko emakume bat ortura joan zela bere semea etxean utzita. Halako batean otso handi bat etxera sartu zen eta umea eraman zuen.

Emakumea ortuan zegoela, otsoak umea ahoan zeramala ikusi zuen. Erabat izututa, laguntza eske hasi zen bere semea arriskuan zegoela ikusita.

Bat-batean zaldun bat agertu zen. Zaldunak otsoa hil eta umea otsoaren ahotik askatu zuen.

Otso handi horrek “OTXANDIO” izena ematen digu.

OHITURAK ETA TRADIZIOAK

Otxandioko ohituretako bat San Juan sutearen ostean egiten den “letxugada” da. Egun honetan San Juan jaia ospatzen da; sutea amaitutakoan, herriko jendea plazan gelditzen da eta umeak, herritik gertu dauden ortuetara joaten dira letxugak ostera. Ekainaren 11n, Mekoleta auzoan, San Bernaberen omenezko jaia ospatzen da.

Irailaren 8an Gatzagara joatea da ohitura. Antzina, herriko jendea Gatzagara joaten zen sendatzeko belarrak jasotzera. Gaur egun, egun pasa joaten da. Egun horretan, arratsaldean, pilota partidak antolatzen dira.

Otxandioko patroia Santa Marina da, bertakoentzat “Santamaña”. Jai hauek herriko jairik inportanteenak dira. Uztailaren 18an patroii eguna dugu. Jaietan ohitura da Aztikurutz elurtegira igotzea. Berko elurra batzen dute eta hurrengo udan, herriko jaietan hartutako elurrarekin limonada egiten da. Limonada hori Otxandioko plazan banatzen dute.

Irailaren hirugarren domekan, “Basabisita” ospatzen dute. Alkate eta zinegotziek, bake epaile, aguazil, basozain eta herritarrekin batera herriko mugen inguruan ibilaldi bat antolatzen dute mugarrien egoera ikustatzeko eta zuhaitzetan herriko mugak ikur bereziak ipinita adieraziz.



Pilotalekua

EKONOMIA

Otxandion, Arratia Nerbioi eskualdeko ia herri guztietan bezalaxe, langile askok industrian eta lehen sektorean lan egiten dute. Industria txikia (metal industria eta makineria), basogintza (pinua) eta abeltzaintza (esne eta haragi-behiak) dira udal herriko ekonomia jarduera nagusiak.

Beharrezan diharduen populazioaren ia bi heren bigarren sektorean dabilta eta herena eskas hirugarrenean, %10a baino ez da lehenengoan ari.

-Lehen sektorea (oinarrizko sektoreak):

Hogei lagunek egiten dute lan sektore honetan , %5,1 (jendetza aktiboari dagokionez) nekazaritzan (1226 ha), indartsuena bazka lanaren ingurukoa da. Abeltzaintzan ardiak dira nagusi .

-Bigarren sektorea (eraikuntza eta industria):

206 lagunek egiten dute lan sektore honetan, populazioaren %52,4a hain zuzen ere. Biztanleriaren zati handienak arlo honetan egiten du lan.

-Hirugarren sektorea (zerbitzuak):

167 lagunek egiten dute lan sektore honetan, populazioaren %42a, oinarrizko premiak espezializatuta ez egon arren.



Kerixara baserria

IBILBIDEA

1go etapa: Otxandio-Aztikurutz (90 minutu)

Eskolatik abiatu, herria zeharkatu eta Mataderora helduko gara. Bidea jarraitu eta zubi bat zeharkatuko dugu basoan barneratzen garen bitartean. Aldapa igotzen ari garela, arbolaz beteriko inguru zoragarri batez gozatu ahal izango dugu.

Bidea jarraitzen badugu, Aztikurutz izeneko elurtegi batera helduko gara, bertan neguan pilatutako elurra biltzen da izotza erabili ahal izateko. Izotz hori herriko jaietan biltzen da plazan limonada egiteko.

Goian gaudela joko batzuk egingo ditugu herriaren paisaiatz gozatzen dugun bitartean. Eguerdi aldera eskolaraino jaitziko gara eta han ogitartekoak jango ditugu.



Aztikurutz elurtegia

2. etapa: Herrian zehar (90 minutu)

Bazkal ostean, Mainondo auzoa atzean utzita (eskolako auzoa), basoan barneratuko gara, Kerixara izeneko baserri batera helduz. Han gaudela, zubi bat zeharkatuko dugu, Elizabarri baselizarantz abiatzen garelarik.

Aurrera jarraituz aldapa bat igoko dugu eta etxe berrietara helduko gara, edota alde berrira. Bide horretatik jarraituz ezkerretarantz egingo dugu, Basogai auzoa atzean uzten dugularik. Andikona auzora helduko gara (1936. urtean Gerra Zibilean, auzo hori bonbeardatua izan zen).

Andikona plazatik abiatuta, Artekale jarraituz, plaza nagusira helduko gara. Bertan gaudela, Vulkano jainkoaren omenez egindako iturria bisitatuko dugu (1850. urtean izan zen sortua Vulkano iturria). Bertan eraikin gehiago ikusiko ditugu: Otxandioko eliza, udaletxea, pasealekua edota Felipe Arrese Beitiaren harrizko irudia...

Pasealeku ondoan dauden eskailera batzuk jaitsiko ditugu eta bolalekura helduko gara. Aspaldi, bolaleku honetan boloetara jolasteko ohitura handia zegoen. Bolalekua zeharkatuz eskailera igo eta plazara bueltatuko gara.

Eliza ondoan dagoen Uribarrena kaletik sartuko gara, beheraino jaitsi eta ezkerretarantz hartuko dugu Arrabal kalea, apur bat aurrerago autobus geltokia ikusiko dugu eta ezkerretarantz egin beharko dugu zaharren egoitza bisitatu ahal izateko.

Bideari jarraituz, eskumako bidea hartuko dugu burdinola baten ondotik pasatuko garelarik. Aurrerantz eginez Urkiola erreka ikusi ahal izango dugu.

Azkenik, aurrera egingo dugu Mainondo auzora heldu arte, bertan eskola ikusiko dugu eta gure ibilbideari amaiera emango diogu.



Carniceria kalea

BIBLIOGRAFIA

- Irazabal, Jon. (2003). *Otxandio Gerra Zibilean (1936/37)*. Bilbo. Gerediaga Elkarteak.
- Ubeda, Olaia/Garbiñe (1998). *Nire lehen atlasa "Euskal Herritik mundura"*. Donostia. Elkarlanean S.L.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. (1995). *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia. LUR Argitaletxea, S.A.
- Klaudio Harluxet Fundazioa. (1995). *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia. LUR Argitaletxea, S.A.
- Arbeloa, M.A., Gòmez, E., Lanza, M., Barinagarrementeria, D., Aduenza, B., Alday, P., Comas, M.J. (1999). *Amalur Geografia y Física Humana de Euskal Herria IV BIZKAIA-NAFARROA*, in *Nosotros Los Vascos*, 38-39, Bilbo, LUR Argitaletxea S.A.
- Igarza, J.A., Arteaga, J., Alberdi, J.M., Otxandiano, A. (2005). *Otxandio. Atxondo, Izurtza, Mañaria, Otxandio*, 29-30-31-32-35-36-37.
- Otxandioko Udala. (2005). *Otxandio, un lugar de altura*.

EGILEAK

Otxandioko L.H-ko 5. eta 6. mailako ikasleak:

- Astigarraga Amorrortu, Martin
Axpe Ajuria, Julen
Basterretxea Kapanaga, Andere
Bengoa Arcarazo, Goiatz
Bengoa Diez, Martin
Morote Navarro, Silvia
Sánchez Bengoa, Mikel
Sánchez Uriarte, Miren
Unzalu Barredo, Ane
Urrejola Oarbeaskoa, Ibon
Zabala Goikoetxea, Kenar

URDUÑA



HERRIAREN KOKAPENA

Urduña Arabako lurraldean dago, baina Bizkaiko hiria da, Bizkaiko hiri bakarra. Arratia Nerbioi eskualdean dago.

Mugak

Urduñako mugak hauek dira:

- Iparraldean, Arabako Saratxo eta Lekamaña.
- Hegoaldean, Burgoseko Losa harana.
- Ekialdean, Arrastaria harana (Aloria, Artimaña, Delira eta Tertanga).
- Mendebaldean, Aiara eskualdea.

Azalera

Urduñak 33,6 km karratu ditu. Itsas mailaren gainetik 297 metrotan dago.

Biztanleria

Gaur egun Urduñak 4.000 biztanle inguru dauzka, dentsitatea 120,5ekoa izanik. 1960tik, biztanleria gutxituz joan zen hirian lantegi gutxi zegoelako, hau dela eta, beste herri batzuetara bizitzera joan ziren.

Orografia

Gorobel izeneko mendizerraren oinetan dago kokatuta gure hiria. Urduñak lur eremu zabalak ditu eta bertan herria, soroak eta larreak ditu.

Hidrografia

Nerbioi ibaiak 825 m ditu; Delira gainean jaiotzen da eta 50 kilometrotara Kantauri itsasoan itsasoratzen da.

Klima

Klima mota nagusia ozeanikoa da, hezea, epela eta urte osoan egiten du euria. Urduña mendizerra handi baten ondoan dago kokatuta eta horregatik neguak kostaldean baino hotzagoak eta udak beroagoak izaten dira.

Gure hiriko berezitasun meteorologiko bat “el bollo” edo “opila” deitzen da. Hau odei handi bat da eta mendizerra estaltzen du. “El bollo” Burgosko Losatik laino hotz bat jaisten denean eta Urduñako tenperatura beroarekin topo egiten duenean sortzen da, batez ere neguan.

Landaretza eta fauna

Gure hirian pagadi eta harizti altuak daude oraindik, “insignis” pinua ere ugaltzen den arren.

Nerbioi ibai ertzetan zuhaitz mota ugari dago, adibidez: gorostiak, lizarrak, urkiak eta abar.

Egun nagusiak 7, 8, 9, 14 eta 15a dira. Hauetan barrakak, herri kirolak, buruhandiak, su artifizialak, zezenak, kale antzerkiak, txarangak, kontzertuak, arrantza, txokolatada, herri bazkaria eta abar dauzkagu. Umeok ere gure eguna daukagu, 9an, eta egun horretan guretzat antolatutako ekintza berezietan parte hartzen dugu.

Azken egunean, maiatzaren 15eko gauean, “Bihotza” erretzen da eta erretzen den bitartean denok jaietako zapiak sutara bota egiten ditugu berarekin erretzeko. “Gora Otxomaioak” eta “Gora Urduña” oihukatu ondoren jendeak “Piloia” deitutako iturrira blai eginda jaiak amaitzen dira.

Anima zaitzte gure jaietara etortzera, primeran pasatuko duzue egiten.

OHITURAK ISTORIOAK

Atzamarreko iturria

Gure herrian “Antzinako Andra Mariren santutegia” daukagu. Honen aurrean iturri bat dago. Iturri honek ontzi bat du ura edateko baina ontziaren beheko aldea zulatuta dagoenez ura edan nahi denean atzamarra jarri behar da zuloa estaltzeko eta ontzia urez betetzeko.

Pisua

Santutegi honetan badago XVIII. mendeko jaioberriak pisatzeko pisu bat. Antzina, umearen pisua garitan elizari ematen zioten. Gaur egun ohitura hau mantentzen da eta jaioberri batzuk eramaten dituzte pisatzeko baina elizari garaurik eman gabe.

Antzinako Ama Birjina

Santutegi honetan dagoen Ama Birjinaren gure patroia da eta zergatia kontatuko dizuegu.

Istorioak dioenez, Urduñako artzain bati masustondo baten adarretan Ama Birjina agertu zitzaion. Artzainak gertatutakoa herrikoei kontatu zien eta jendeak eliza txiki bat eraikitzea erabaki zuen.

Orain dela 100 urte, mendikatean, Txarlazo mendian, Ama Birjinari monumentu bat egin zioten. Honetan, Urduñako jendeak ez ezik inguruko herrikoek eta Losako haranekoek ere parte hartu zuten denek asko maite zutelako. Baina arazoak sortu ziren Losakoek Ama Birjinak bere aldera begiratzea eta Urduñako eta Aiarakoek haien aldera begiratzea nahi zutelako. Azkenean, Ama Birjinak aurpegia guri ematen digu.

Amaitzeko “Antzinako” izena nondik datorren kontatuko dizuegu.

Orain dela urte asko eta asko, Urduñan lehenengo biztanleak mendikatearen magalean, santutegiaren ondoan bizi ziren. Mende batzuk pasa eta gero bizilekua aldatu zuten gaztelu ondora joateko. Baina orduan eliza oso urrun zegoenez beste eliza berri bat eraikitzea erabaki zuten. Handik aurrera santutegia zaharrena zenez “Antzina” izenarekin geratu zen.

Urduñan perretxiko mota ezberdinak daude, garrantzitsuenetarikoa, udaberriko perretxikoa da, kalitate handiko espeziea izanik.

Basoetan basurdeak eta orkatzak bizi dira. Azken aldian, otsoek ere arrastoak utzi dituzte arazo larriak sortuz artzainei.

Mendizerrako haitzetan ugaltzen ari diren sai arre eta sai zurien habiak ikus ditzakegu. Hirira zikoina zuri bikote batzuk etorri dira bizitzera, habiak plazan dituztelarik.

Ibaietako espezie garrantzitsuena karpa da.

URDUÑAKO HISTORIA

Urduña Araba eta Burgosen artean dago eta oso ondo kokatuta zegoen merkataritza eta babesaren ikuspuntutik, Gaztelara zihoan jendearentzat.

Urduñari bere lehen titulua Alfonso III.ak eman zion. Hiria ez zen fundatu 1229. urtera arte, Haroko Lope Diaz jaunak hiri gutuna eman arte. Beranduago, 1256an beste hiri gutuna eman zion Alfonso X.k, errege katolikoaren garaian hiri titulua lortu arte.

XVI. mendea probetxu handikoa izan zen gure hiriarentzako, baina gero suteak izan ziren eta honekin batera beherakada handia bizi izan zen.

Merkatuak famatuak egin ziren XVIII. mendean eta Aduana eraiki zuten. Frantziarrek hiria eraso zutenean, eskubide aduanarioa galdu egin zen; Aduana zegoen eraikina beranduago militarren kuartela eta eskola izan zen, eta gaur egun eraiki berria da hotela eta bainuetxea. Mende honetan musulmanen kontraren egindako guda guztietan hiritarrek irabazi zuten.

Alde historikoa sortu zen eta oso handia da, hamar hektarea ditu. Alde zaharreko kale guztiek plazara eramaten gaituzte, horregatik hiriaren planoa oso berezia da. Egindako lehenengo kaleak, Burdin, Artekale eta Harategi izan ziren. Ondoren, Zaharra, Frankos, Orruño, Donibane eta Lukas Deuna kaleak sortu ziren.

Antzina harresi batek inguratzen zuen Urduña herria babesteko, baina gaur egun zati bat baino ez da gelditzen, beste guztia erre zuten eta.

XIX. mendean bere garrantzia berreskuratu zuen eta mende horretan jaio zirenen oroitzapena daukagu: Pozako Andres, Garaiko Juanes eta Santa Fe.

TRADIZIOAK

Urduñako jaiak

Maiatzaren 8an, “Otxomaioak” deitzen diegun jaiak ospatzen ditugu.

Orain dela 400 urte Urduñakoek, egun hartan, Aintzinako Ama zaindaria aukeratu zuten botoa emanaz. Handik hona urtero gertaera hau ospatzea erabaki zuten, jai hauek sortuz. Arrastirako eta Saratxako auzokideek botoa ere eman zuten, maiatzaren 9an lehenak eta 14an besteek. Horregatik urtero “Aintzinako” Santutegira joaten dira haien maitasuna eskaintzeko.

Maiatzaren 7an, “Bihotza” txistularia, jaietako pertsonaiaren etortzeak eta txupinazoak jaietako hasiera ematen die.

Jarduera ekonomikoa

Urduñan zerbitzuen sektorea da nagusi. Biztanleriaren kopuru handienak, sektore horretan egiten du lan, eta gainera, datozen urteetan gehiago indartuko da.

Industria

Industria sektoreak birmoldaketa sakona bizi izan du azken urteetan eta gaur egun bertako enpresa txiki ugari, enpresa handiaren osagarri modura daude.

Nekazaritza eta Abeltzaintza

Ruzabal juntako baserrietan (Lendoño Goikoa, Lendoño Bekoa, Mendeika eta Belendia) zaldiak, ardiak eta behiak ikus ditzakegu.

Nekazaritzari dagokionez, artoa, bazka landareak eta sagarrak asko landatzen dira. Txakolina ekoizteko mahatsak ere, indarra hartu du.

Komunikabideak

Urduña ondo komunikatuta dago inguruko probintziekin errepidetik, autobidetik eta aldirietako RENFE trenbidetik.

PROPOSATUTAKO IBILBIDEA

Lehenengo geldialdea:

🚦 Orografikoki kokatuta.

Bailara mendikatez inguraturik dago. Nerbioiko ur-jauzia (Europako ur-jauzi garaienatariko bat/ abereak/ opilaren fenomenoak/ ibai aldeak/ leizeak...)

🚦 Lehenengo poblazioak: Neolitoko artzainak – Lekuko trikuharriak

🚦 Gorobel mendilerroa- Muga naturala.

Gaztela eta Bizkaiko jauregiaren arteko muga naturala.

Gaztelako artilea Herbeheretatik eskatuta.

🚦 Geografikoki kokatu eta azaldutako irla bizkaitarra eta mugak.

🚦 Tradizioak

- Antiguako Andra Mari, Bizkaiko lehen tenplua agiritan: otxomaioak.
- Gari pisua: XVIII. mendeko pisua jaioberriak pisatzeko.
- Atzamarreko iturria.
- Txarrazoko monumentua.

Bigarren geldialdea: Gaztelu ondoko parkea

🚦 Gazteluaren historia.

Hirugarren geldialdea: ELIZAREN ATZEKO ALDEA

🚦 Eliza

- Gotordua: Elizaren horma harresia bera da.
- Kapera jabledunak: Leinu inportanteak.
- Erronda pasalekua.

Laugarren geldialdea: PLAZAN

🚦 Arkupeak: jatorria komertzioan eta epaiketetan.

🚦 Jauregiak: garrantzitsuenak.

🚦 Aduana.

IBILBIDEA

LEHENENGO GELDIUNEA: SANTUTEGIA

Orografikoki kokatuz Gorobel mendilerroaren oinetan dago. Urduñako lehen biztanleria Antiguan izan zen Txarlazo azpian.

Gure hiria Bizkaiko irla bat da nahiz eta Araban egon. Arana Aloria, Artomaña, Delika eta Tertangaren artean banatzen da. Herrixka horiek orain Amurriokoak dira baina 1380 urtera arte Urduñakoak izan ziren.

Gorobel mendilerroan ibai bat jaiotzen da, Nerbioi izenekoa. Honek Kantauri itsasoan isurtzen du ura. Oso aberatsa da landaretzari begira. Mendilerroko mendirik altuena Aro, Eskutxi, Tologorri, Ungino eta Urieta dira. Turistei gehien bisitatzea gustatzen zaiena Txarlazo da.

Klima mota nagusia ozeanikoa da, hezea eta epela da eta urte osoan zehar euria egiten du. Gure hiriko berezitasun meteorologiko bat “opila” edo “bollo” da. Hodei handi bat da. Burgoseko Losako laino hotza eta Urduñako tenperatura beroa elkartzen denean sortzen da. Lehenengo urduñarrak artzainak izan ziren, animalien janariaren bila hurbildu zirenak, zelai asko dugulako. Udan abereak mendira eramaten zituzten belar gehiago zegoen eta, neguan berriz herrira jaisten zituzten dena elurtua zegoelako. Urduñako lehen tenplua La Antigua izan zen, 937an eraiki zena. Txarlazo mendian, ama birjinaren monumentua eraiki zen.

Tradizioak

Urduñako jaiak maiatzaren 8an dira eta “otxomaioak” deitzen dira. Egun nagusiak 7a, 8a, 9a, eta 14a dira. Gure hiriko jaietako pertsonaia “Bihotza” da, txistulari bat da eta urtero panpina egiten zaio. Jaiak bukatzerakoan zapiak eta “Bihotza” erre egiten dira eta baita jendea Piloira bota ere.

Atzamarreko iturria eta Gari pisua

Santutegian badago XVIII. mendeko gari pisua. Antzina jaioberriaren pisua elizari ematen zitzaion garitan.

Honen aurrean iturri bat dago ontzi batekin. Ontzia beheko aldetik zulatuta dagoenez edateko atzamarra sartu behar da, edaten den bitartean hiru desio eskatu behar dira eta bat egia bihurtuko da.

Ama Birjina

Historiak kontatzen duenez Ama Birjina artzain bati agertu zitzaion. Herritarrei kontatu eta Txarlazo mendian eliza bat eta monumentu bat egin zen, Ama Birjinaren itxura zeukana, baina burua ez zekiten zein aldetara begira egin, Burgosko Losakoek ere eurei begira jartzea nahi zutelako.

BIGARREN GELDIUNEA: GAZTELUA

Hemen “Gaztelu” izeneko muinoa dago. Orain dela denbora asko, gainean gaztelu bat zegoelako dauka izen hau. Hau Alfonso Ik VIII. mendean, musulmanen erasoetatik babesteko, eraikitzea agindu zuen. Baina Urduña merkatal leku garrantzitsua zenez, hurbil bizi izandako

familia indartsu baten Jaunak behin eta berriro borroka egin zuen gazteluaren jabea izateko. Hori lortzen zuen bakoitzean oso txarto portatzen zen hemengo jendearekin. Horregatik urduñarrek Gaztela Erresumako erregea jabea zen momentu batean, gaztelua erosi zioten sua emateko, ez zutelako Aiara Jaunak berriro erasotzea nahi.

Hiriburua

Hiribilduaren jatorria merkatal eta artisau-lana izan zen. Ia hiribildu guztiek elementu antzekoak izan zituzten: harresia, gaztelua, kale estuak, kaleen izenak, kantoiak...

Haien barruan bizi ziren pertsonak libreak ziren, gremio batzuetan lan egiten zuten eta foru edo pribilegio batzuei esker ez zieten jaunei zergatik ordaindu. Modu horretan posible zuten aberastea.

Bizkaiko lehenengo hiribildua Balmaseda izan zen eta Urduña bigarrena.

Harresia

Esan dugun bezala, hiribilduak babeserako harresia zeukan. Gaur egun ez dago osoa baina badakigu ia kilometro bateko luzera, metro hogeï zentimetro inguruko zabalera eta 8 edo 9 metroko altuera zeukala.

Hau eraikitzeke bi horma altxatu zituzten eta haien arteko hutsunea betetzeko harri txikiagoak bota zituzten.

Antzinako harresiak kuboak, matakanak eta almenak zituen. Harresiaren osagai moduan Andra Mari eliza zegoen. Honen hormak harresiaren parte ziren. Eliza hauei gordeleku elizak deitzen zaie. Oso garrantzitsua izan zen eta horra eramaten zituzten Bizkaiko balore handiko gauzak, babesteko.

Ateak

Oso garrantzitsuak izan ziren etsaiak, txiroak, eskaleak eta izurriteak edo beste gaixotasun kutsakor ekartzen zituzten pertsonak ez sartzeko.

Bost ate zeuden komunikazio-bide garrantzitsuetan:

- Orruñoko atea eta San Migel atea, biak Bizkaiko bidean.
- Andra Mari atea, Gasteizko bidean.
- Antzinako atea, santutegiko bidean
- Eta San Julian edo San Frantzisko, Burgosekoa.

HIRUGARREN GELDIUNEA: ELIZA

Jatorrizko hirigunea

Andra Mari ate ondoan “Ortes Velasco” jauregia dago, familia aberats batena izan zena.

Hemendik hurbil Andra Mari eliza ikusten dugu. Honen hormak harresiaren zati ziren. Bizkaiko elizarik handienetarikoa, familia aberatsek egindako 6 kapera ditu eta balio handiko gauzak gordetzen dira. Eliza barruan eskailera bat dago Erronda pasalekura igotzeko. Pasaleku honetan soldaduek zaintza egiten zuten.

Hiribilduko lehenengo zati honetan hiru kale estu-estu zeuden:

- Harategi kalea. Deitura hau harakinak bizi zirelako hartu zuen.

- Artekale, beste bi kaleen artean.
- Burdin kalea. Burdina lantzen zutenak bizi ziren.

Azken kale hau hartzen badugu Atari Ilunera helduko gara. Hau da geratzen den ate bakarra. Bere bi aldeetan zulo batzuk ikus ditzakegu enborrak zeharkatzeko eta horrela atea ixteko. Harresiak ere dorre batzuk zeuzkan baina geldiuone honetan ikusiko duguna da osoa gelditzen dena da. Orain gutxi arte kartzela izan zen eta gaur egun udal artxiboa da. Beste aldean Erlojuaren dorrea zegoen. Hiribildu txiki hau 1229an Bizkaiko Jaunak, Lope Diaz de Harok fundatu zuen.

Bigarren kale multzoa

Geroago, Bizkaiko Jaunaren eta Gaztelako erregearen arteko tirabirekin amaitzeko Alfonso X.a Urduñara etorri zen bera jabea zela argi uzteko; Bizkaiko Jauna menpe hartu zuen, errege gutuna sinatu zuen eta hiribildua handitu zuen bigarren kale multzoarekin: Kale Zaharra, Francos, Orruño, Donibane eta Lucas Deuna. Zati honetan Orruño kalearen amaieran izen bereko ataria zegoen eta Kale Zaharrean San Migel atea. Bi jauregi ere ikus ditzakegu: Mimentza eta Diaz Pimienta. Zati hau babesteko harresi zati berria eraiki zuten eta beste ate bat agertu zen: Santutegikoa. Horrela hutsune handi bat geratu zen plaza moduan.

Hirugarren kale multzoa

Urduñak hazten jarraitu zuen eta hiru kale berri agertu ziren: Burgos, Cantarranas eta Berria. Hauek alde batetik plazaraino heldu ziren eta beste aldetik puntu batean elkartzen ziren. Puntu honetan San Frantsizko atea zegoen. Besteak bezala hau ere harresiz inguratutik egon zen.

LAUGARREN GELDIGUNEA: PLAZAN

ARKUPEAK EDO HASTIALAK

Urduña arkupe edo hastiala (bertako izena) bereziz inguratuta dago. Erdi Aroan, harresia eraiki zenean, etxe batzuk bota behar izan zituzten eta herritarrek hastialetara joan behar izan zuten. Horrela hastialak publikoak bihurtu ziren.

1508. urtean merkatuak etxeen azpian zeuden eta etxeetako jabeek diru asko ordaintzera behartu zituzten merkatariak. Azkenean autoritateek desegin zuten ohitura hori.

JAUREGIAK ETA ERAIKINAK

Mimentza jauregia

Bizkaiko jauregietatik lehenetarikoa da. Beheko solairua silarriz eginda dago eta sei arku ditu. Bigarren eta hirugarren solairuak, berriz, adreiluz eginda daude. Mimentza jauregia 1529.urtekoa dela dio Minentza Salazar armariaren ondoan dagoen inskripzio batek.

Diaz Pimienta jauregia

Diaz Pimientaren jauregia plazan kokatuta dago, udaletxearen ondoan. Neurri handiko eraikina da, eta hiru solairu ditu, baina hirugarren solairua faltsua da. XVII. mendearen erdian eraiki zen.

Udaletxea

Udaletxea harresiaren ondo-ondoan dago eta egin diren eraikin guztiak harresi barruan zeuden.

Emiliano Amann eta Manuel Martin de Smith izan ziren udaletxea eraiki zuten arkitektoak. Aipagarria da goiko aldean dagoen dorrea, zikoinak bizi direlako eta oso polita delako. Gaur egun dorre bakarra du eta antzina kartzela modura erabiltzen zen.

Familia sakratuaren familia

1680.urtean fundatu zuen Juan de Urdanegik. 1680.an Carlos III.ak Jesuiten ikastetxea eraikitzea agindu zuen eta gaur egun “Colegio Ntra. Sra. de la Antigua” dago bertan.

Piloia

Piloia plazaren erdian dago udaletxe aurrean. Antzina, emakumeek arropa garbitzeko erabiltzen zuten. Zazpi dira plazara ematen duten kaleak eta horregatik zazpi iturri ditu. Gaur egun jendeak jaietan bota egiten du.

HIRIKO ATEAK

Antzina, atea oso garrantzitsuak ziren hiria babesteko. Etsaiak ezin zirelako sartu. Eskaleak, dirugabeak eta gaixotasunak zeuzkatenak, ez zituzten sartzen uzten eta lapurrek osten bazuten, eskua moztu eta atean zintzilikatzen zuten.

Santutegiko atea

Antzina hemen ate bat zegoen santutegira ailegatzeko. Hasieran “Antzina” atea deitu zioten.

Orruño atea

Lehen harresiaren atzeko aldean foso bat zegoen. Orruño atea edo Bizkaia atea bezala ezagutzen da.

San Frantzisko atea

Ate hau zahar egoitzaren ondoan dago kokatua, San Frantzisko kalean. Gaur egun klaustroa baino ez da gelditzen.

Ate iluna

Ate iluna Burdin kalean dago. Lehen errementari askok lan egiten zutelako deitzen da horrela. Gaur egun Urduñan eraikita gelditzen den ate bakarra da.

Artekale atea

Artekale kalean zegoen kokatua. Hirugarren atea zen eta Udaletxetik nahiko hurbil zegoen.

Mimenza jauregia

Bizkaiko jauregitatik lehenetarikoa da. Beheko solairua silarriz eginda dago. Sei arku ditu. Bigarren eta hirugarren solairuak adreiluz eginda daude. Mimenza jauregia 1529. urtekoa dela dio Mimenza Salazar armariaren ondoan dagoen inskripzio batek.

Udaletxea

Udaletxea harresiaren ondo-ondoan dago eta harrigarria da, egindako eraikin guztiak harresi barruan daudelako. Antzina jauregi bat izan zen.

Emiliano Amann eta Manuel Maria de Smith arkitektoek eraiki zuten gaur egungo udaletxea 1772an.

Aipagarria da gainean duen dorrea, zikoinak bizi eta ederra delako.

ADUANA

Carlos III.ak agindua eman zuen Aduana eraikitzeko 1782an. Estilo neoklasiko garbia dauka eta oso zorrotza gainera.

Antzina Aduana bezala erabiltzen zen, gero kuartela, eskola... beste erabilpenen artean.

Orain dela gutxi bainuetxe bihurtu dute, "La Muera"ko ura erabiliz, eta lau izarretako ostatua da.



Familia Santuaren eliza da. Plazan kokatuta dago, goiko aldean zikoinek habiak egiten dituzte. Urduñako erloju bakarra berak dauka.



Burdin kalea da, Foru plazaren alboan dago, bertan etxeak, dendak eta kafetegiak daude, eta sartzeko ate ilunetik pasatu behar da.



Antzinako hilerria da, hildakoak lurperatzen zituzten. Hilerria, Santa Maria elizaren ondoan dago, gaur egun, harresiaren zati bat da.



Argazki honetan harresia ikusten dugu. Antzina, harresi hau gudetan babesteko erabiltzen zuten. Santa Maria elizaren ondoan dago. Harresia ez du osorik iraun.



Hau piloia da, plazaren erdian dago. Orain dela asko eraiki zuten eta arropa garbitzeko erabiltzen zen. Plazara ematen duten kaleak zazpi direnez zazpi iturri jarri zituzten.



Urduñako Aduana izandakoa lau izarreko Hotel-Balnearioa da eta Foru Plazan dago (lanetan zegoen momentuan). Oso polita eta modernoa da.



Urduñan etxe berri asko egiten ari dira, baina plazan badaude antzinakoak ere; Argazki honetan adibide bat daukazue. Hau Mimenza jauregia da eta fatxadan armarria dago.



Hau Santa Maria eliza da. Liburutegi aurrean dago. Ikusten den kalea Burdin kalea deitzen da. Eta oso polita da. Denok joaten gara eliza honetara.



Plazan dagoen “Diaz de pimienta” jauregia da. Bereztasun bezala arkupeak aipa daitezke. Udaletxe ondoan dago. Eraikuntza hau harriz eginda dago.